

ARANZADI ERAZTUNTZE BULEGOKO DOKUMENTUAK

ERAZTUNKETA PROIEKTUA PRESTATZEKO JARRAIBIDEAK

Bertsioa: 2014ko iraila

Dokumentu hau honela aipatu:

Aranzadiko Eraztuntze Bulegoa, 2014. Eraztunketa proiektua prestatzeko jarraibideak. 2014-ko iraileko bertsioa. Aranzadi Zientzi Elkartea. Donostia- S. Sebastián.

SARRERA

Eraztunketa Animalia, Landare eta Gune Naturalen Kontsebaziorako 4/1989 Legea urratzen duen jarduera da, indargabetua eta 42/2007 Legeak aldatua, zeinetan animalia basatien harrapaketa eta eragozpena espresuki debekatzen den. Hala ere, Legeak kontuan hartzen du, administrazioaren aurretiko baimenarekin, debeku hauek efektu barik geratuko liratekela baldin eta ikerketa, heziketa, birpopulaketa edo birsartzea helburu badira. Eraztunketa, beraz, behar bezala justifikatu behar da. Dokumentu honek ondo justifikatutako eraztunketa proiektuak egiteko jarraibideak ematea du helburu, batez ere administrazioaren pertsonalaren ikuspuntutik, zeinek hegaztien eraztunketa balioztatu eta bere kasuan, baimena eman behar baitute.

Aldi berean, proiektu baten garapenak, eraztunleari lanaren berrikuspen kritikoa errazten dio; nolabait, jarduerak era argi batean definitzera derrigortzen du: helburu diren espezieak, beharrezkoa izango den laginaren tamaina, laginketa eguna eta ordua, neurtu behar diren aldagaiak, aurrekontua...

ERAZTUNKETA PROIEKTU BATEN ALDERDI OROKORRAK

Termino orokorretan, eraztunketa proiektua, proiektu bat da, zeinean lortu nahi diren helburuak lortzeko metodo bakarra, hegaztien eraztunketa den. Kontestu honetan, eta 42/2007 Legea birgogoratzuz, ezinbestekoa da proiektuak helburu argiak eta ondo adieraziak izatea, egutegi eta jarduera protokoloa oso ondo antolatuta eta helburuekin bat datozenak izatea.

PROIEKTU BATEN ATALAK

Proiektu batek honako atal hauek izan behar ditu:

- Parte- hartzaileen eta proiektuaren arduradunaren edo koordinatzailearen agerpena.
- Sarrera eta justifikazioa.
- Helburua(k).
- Helburu-espezieak eta ale-kopurua (egokia baldin bada)
- Ikuspegi metodologikoak: eraztunketa gunea, data eta ordutegiak, harrapaketa metodoak.
- Jardueraren ustezko eragina eta aurre ikusitako gatazkak(egokia baldin bada).
- Bestelako oharra (behar izanez gero).

PROIEKTU BATEN ATALAK: SARRERA ETA HELBURUA

Atal honetan, proiektua balioetsi behar duen pertsonak behar bezala justifikatuta dagoela esateko beharrezkoak dituen datuak eman beharko dira. Komeni da hemen irakurtzea, eztabaidatzea, helburua argi edukitzeko informazioa jasotzea, eta kontestuan jartzea, momentu arte zer egin den galdetzea eta zer dagoen egiteke eta jakiteke.

Zenbait proiektu, epe luzeetarako esfortzu jarraiko estazioak esaterako, badauzkate jada ondo definitutako helburuak: espezieen monitorizazioa epe luzeetan beren aberastasunaren, superbizipenaren eta produktibitatearen joerak ikusteko helburuarekin. Mota honetako estazioen adibideak, EMAN (Hegazti Habiagileak Monitorizatzeko Guneak) programaren barruan izena emanda dutenak dira.

PROIEKTU BATEN ATALAK: HELBURU-ESPEZIEAK

Proiektu batzuetan argi definituta daude helburu espezie bat edo kopuru txiki bat, bai eta lagin tamaina egokia. Espezie kolonialen epe luzeko jarraipenen kasuan (artheidak, kaioak, sorbeltzak, zenbait harrapari esate baterako), harrapaketa metodo espezifikoak behar dituzte, edo habia kutxekin egindako ikerketak... Zenbait kasuetan komenigarria da argi zehaztea harrapatu nahi diren espeziak. Honek baimenaren kudeaketa errazten du, batez ere espezie babestuen kasuan edo horien harrapaketa egiteko inguru babestuetan sartu behar den kasuetan.

PROIEKTU BATEN ATALAK: METODOLOGIA

Ikerketa area zehaztea garrantzitsua da. Leku zehatz batean lan egitekotan (baso batean, hezegune batean, adib.), komunitate osoari edo probintzia osoari baimena eskatzeak ez du zentzurik. Laginak puntu desberdinetan hartu nahi izanez gero, aldeztatik puntu horiek zehaztea komeni da, edo kontrako kasuan, zergatia justifikatu (oso mugikorrek diren espezieak, adibidez, aldeztatik ezin dela jakin non harrapatuko diren).

Ikerketa arloari dagokionez, interesgarria da ere zehaztea lursailean edo landaretzan egin ahal izango diren jarduerak. Horrelako kasuak dira esaterako, sareak jartzeko landaretza zerratuetan burutu behar diren sasi garbiketak eta lezkadietan edo zenbait zuhaisken kasuan egin beharreko aktuzioak.

Iraupen luzeko ikerketetan, ezinbestekoa da lursailaren etorkizuna zein izango den jakitea (inguru egonkorretan lan egitea komeni da, hala ere, kontrako kasua gertatu liteke eta zenbait aldaketa zehatzen eragina hegazti-faunaren gain ikusi nahi izatea).

Bestalde, funtsezkoa da jarduera kronograma bat egitea: noiz eta zein maiztasunarekin egingo den ikerketa (hamabostean behin, 4 hilabeteko aldi batez maiatzetik abuztu arte, edota egunero eguzkia ateratzen denetik 6 orduko laginketa bat).

Atal honetan harrapaketa metodoak deskribatu egin behar dira ere. Zein tranpa mota erabiliko dugun, zenbat, zein jartze/ikusketa protokolo erabiliko den, etab. Laginketa gehigarriak egingo badira komeni da esatea ere (intsektuen laginketen bidez elikagaien eskuragarritasuna estimatzea, esate baterako).

PROIEKTU BATEN ATALAK: ERAGINA

Eraztunketa baimena balioztatu behar duten kudeatzaileek, bai hegaztiengan eta bai edozein beste elementurengan eraztunketak izan dezakeen eraginaren kalkulu bat behar izango dute. Hala bada, gure proiektuaren eragina zehaztea komeni da. Hegaztietan, maneiaren eraginez dagoen heriotza-tasa, zero ingurukoa da espezie gehienetan eta, beste zenbait kasuetan ez du 1-2%-a gainditzen. Mota honetako datuak badakizkigu, komenigarria da esatea.

Bestalde, landaretzaren erabilera edo beste motatako jarduerak egiteko asmorik balego, adierazi beharko litzateke.

AURREIKUSITAKO EMAITZAK

Proiektu bat ez da bukatzen datuak aztertu edo argitaratu arte edo, termino orokorrago batetan, antolatu den proiektuko helburua lortu den arte. Horrela, proiektuaren produktua zein izango den eta emaitza hori nola eta zein baldintzatan lortuko den zehaztea garrantzitsua da.

Proiektuaren helburua zientifikoa izatekotan, emaitza bezala argitalpen bate do gehiago espero dira, artikulua eran nagusiki, edo txosten eran. Izan liteke eraztuntzailea datuen azterketara eta argitalpenen idazketara ohituta ez egotea. Kasu honetan, lan hauek burutzeko gaitasunak eta formakuntza duten pertsonekin kolaborazioak egitea komeni da, horrela egindako landa-lana lan tekniko bezala agertu dadin eta lanaren emaitzak eta ondorioak irudikatuta gelditu daitezten.

Proiektuaren helburua beste mota batekoa izatekotan (kurtsoak, heziketa programak eskolekin, etab.), argi eta garbi zehaztu beharko lirateke proiektuan aurreikusitako jarduera

horien data eta lekua, ahal izanez gero txosten tekniko txiki baten bidez non honako datuak ere zehaztuta gelditzen diren: partehartzaileen kopurua, harrapatutako hegaztiak, etab.